KOMUNIKATUA - COMUNICADO

Babacarren heriotzak zalantzan jartzen ditu poliziaren jarduna eta osasun mentaleko politikak

Babacar Welle urteak zeramatzan Hondarribian bizitzen. Irailaren 28an, kalean izandako istilu baten ondoren, udal-polizia batek tiroz hil zuen.

Babacar Welle tiroz hil zuen poliziaren jarduna ezin du zigorrik gabe geratu. Ez da onargarria, buruko osasun arazoengatik ezaguna den bizilagun batek ertzain eta udaltzainak aurrean zituela sortutako egoera konpontzeko, bere bizitzarekin amaitu behar izatea. Herritarrak seguru al daude halako jarduerak izan ditzaketen polizien aurrean? Erakundeek poliziaren jarduna babesten jarraituko al dute, ondorioak zeinahi direla ere? Justizia egingo al da Babacarrentzat? Eta azalaren koloreagatik gehiengoaren estereotipo zurira egokitzen ez diren herritarrak seguru eta lasai ibiliko al dira gure hirietako kaleetan?

Eta, jakina, osasun mentaleko arazoei erantzuteko zerbitzuen porrota ere agerian geratu da. Arlo horretan lan egiten duten erakundeek behin eta berriz salatu dute egoera hori. Tristea eta tamalgarria da gabezia horiek agerian uzteko gizartearen arreta bereganatzen duten horrelako gertakari larriak behar izatea. Une honetan egiten ari diren hausnarketak, aurreko beste batzuetan bezala, denborarekin ahaztu eta ondoriorik gabe geratuko al dira? Ez al da garaia erakundeek egoera hori onartu eta hari aurre egiteko plan eraginkorrak martxan jartzeko?

Eta zer esan gertaera lazgarri hauek gorroto-mezuak zabaltzeko baliatzen dituztenei buruz, are gehiago mezu horiei oihartzuna emateko beren orrialdeak eskaintzen dituzten komunikabideak tartean direnean. Ezin dugu ulertu halako hedabide-politika.

SOS Arrazakeriatik, exijitzen dugu Babacarren heriotzari eman beharreko erantzun judiziala ez dadila lausotu ez haren heriotzaren erantzulea polizia izateagatik, ezta hildako pertsonaren ezaugarriengatik ere.

Era berean, osasun mentalaren arretaren ardura duten erakundeei plan publiko, berehalako eta zehatzak eskatu nahi dizkiegu, gizarte osoan benetako eta sakoneko aldaketak ahalbidetzeko.

Azkenik, gure doluminak eta elkartasuna helarazi nahi dizkiegu Babacarren senide eta lagunei. Gure babesa eta elkartasuna izango dute.

KOMUNIKATUA - COMUNICADO

La muerte de Babacar cuestiona la actuación policial y las políticas de salud mental

Babacar Welle, vecino de Hondarribia desde hace años, era abatido a tiros por un policía municipal, tras un altercado público, el pasado 28 de septiembre.

La actuación policial que abatió a tiros a Babacar Welle no puede quedar impune. No es admisible que, para resolver la situación creada por un vecino, conocido por sus problemas de salud mental, ante la presencia de ertzainas y municipales, hubiera que acabar con su vida. ¿La ciudadanía está segura con policías que son capaces de semejante actuación? ¿Seguiremos asistiendo a unas instituciones que cierran filas ante cualquier actuación policial, sean cuales sean las consecuencias? ¿Habrá justicia para Babacar? ¿Podrá transitar con tranquilidad por las calles de nuestras ciudades la ciudadanía que no responda al prototipo de blanquitud?

Y, claro está, tenemos una vez más el fracaso de los servicios de atención a problemas de salud mental, repetidamente puesto de manifiesto por las entidades que trabajan en esa área. Es triste y lamentable que sean sucesos como este, que golpean a la opinión pública, los que muestran estas carencias. ¿Pasarán en poco tiempo, sin pena ni gloria, las reflexiones que se están haciendo en este momento, como ya ha ocurrido en ocasiones anteriores? ¿No es hora de que desde las instituciones se admita la situación y se tracen planes eficaces para hacerles frente?

Y qué decir de quienes aprovechan estos hechos luctuosos para difundir mensajes de odio con el agravante de los medios que prestan sus páginas para darles publicidad. Nunca entenderemos esa política mediática.

Desde SOS racismo, exigimos que la respuesta judicial a la muerte de Babacar no quede opacada por el hecho de que su autoría provenga de un policía, ni de las características de la persona fallecida.

Igualmente, pedimos de las instituciones responsables de la atención a la salud mental, planes públicos, inmediatos y concretos que permitan vislumbrar cambios de calado para toda la sociedad.

Y trasladamos nuestro pesar a familiares y amistades de Babacar, que cuentan con nuestro apoyo.